

TESTU ANTROPOLOGIKOA KOMENTATZEKO GIDA
Irak. Ixone Fernandez de Labastida

Badira irizpide orokor batzuk testu antropologikoa komentatzerako orduan. Era berean, irizpide hauek testuari egin beharreko galderak bideratzen laguntzen dute. Zein da planteatutako arazo nagusia? Zein da oinarritzko tesia?, Zein da tesiaren funtsa eta nola azaltzen da? Zein marko teorikoan kokatzen da?, e.a.

Galdera guzti hauek erantzun ahal izateko, sistematikoki jokatu behar da, analisi bloke edo azpitalde ezberdinak bereiztuz.

Analisi blokeak

1. Tesi nagusia aurkitu eta era berean, hura mantentzen duten oinarritzko kontzeptuak antzeman. Egilearen helburuak zehaztu.
2. Tesi nagusia eta testuan jasotako aspektu edo gai garrantzitsuenen arteko erlazioa zehaztu. Kontzeptu nagusiak nola definitzen diren aztertu (definitzen badira).
3. Argudio nagusiak antzeman, hauen koherentzia (edo koherentzia eza), teorikoki azaldutako urratsak eta arduioetan ager daitezkeen hutsuneak.